



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PROTOKOLOAREN, PRENTSAREN ETA LAGUNTZA ZERBITZUEN ATALA
SECCIÓN DE PROTOCOLO, PRENSA Y SERVICIOS AUXILIARES

PRENTSA OHARRA

Hurrengo astelehenean, 17:00etan, "Antonio Truyol" Jean Monnet Europako Bikaintasun Zentroak antolatutako mahai-inguruan, Pozuelo de Alarcónen

Eusko Legebiltzarreko lehendakari Arantza Quirogak eskualdeetako legebiltzarrei buruz eztabaidatuko du Lisboako Itunaren argitan

Berarekin batera, Manuel Delgado-Iribarren Gorte Nagusietako legelaria eta Joaquín Leguina Madrilgo Erkidegoko presidente ohia egongo dira mahai-inguruan

Hurrengo astelehenean, Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko lehendakariak mahai-inguru batean hartuko du parte, "Antonio Truyol" Jean Monnet Europako Bikaintasun Zentroak *"Eskualdeetako legebiltzarrak: zenbait aukera Lisboako Itunaren arabera"* gaiari buruz antolatutakoan, "Maila anitzeko gobernantza Europar Batasunean eta Batasunaren eginkizuna munduko gobernantzan" izenburupean Pozuelo de Alarcónen egingo diren Udako III. Ikastaroen esparruan.

Mahai-ingurua hurrengo astelehenean hasiko da, 17:00etan, eta, Eusko Legebiltzarreko lehendakariarekin batera, Manuel Delgado-Iribarren Gorte Nagusietako legelariak eta Joaquín Leguina Madrilgo Erkidegoko presidente ohiak osatuko dute taldea. Moderatzaile-lanetan, Europako Parlamentuko lehendakari ohi eta "Antonio Truyol" Jean Monnet Europako Bikaintasun Zentroko zuzendari José María Gil Robles arituko da.





NOTA DE PRENSA

Este lunes, a las 17:00 horas, en la mesa redonda organizada por el Centro Europeo de Excelencia Jean Monnet "Antonio Truyol", en Pozuelo de Alarcón

La presidenta del Parlamento Vasco debate sobre los parlamentos regionales a la luz del Tratado de Lisboa

Compartirá mesa redonda con Manuel Delgado-Iribarren, letrado de las Cortes Generales, y Joaquín Leguina, ex presidente de la Comunidad de Madrid

La presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga, participará este lunes en la mesa redonda que sobre *"Parlamentos Regionales: posibilidades según el Tratado de Lisboa"* ha organizado el Centro Europeo de Excelencia Jean Monnet "Antonio Truyol" y que bajo el título de "La gobernanza multinivel en la UE y el papel de la Unión en la gobernanza mundial" se lleva a cabo dentro de los III Cursos de Verano de Pozuelo de Alarcón.

La mesa redonda dará comienzo a las 17:00 horas de este lunes, y, junto a la presidenta del Parlamento Vasco, se completa el panel con Manuel Delgado-Iribarren, letrado de las Cortes Generales, y Joaquín Leguina, ex presidente de la Comunidad de Madrid. La moderación correrá a cargo de José María Gil Robles, ex presidente del Parlamento Europeo y director del Centro de Excelencia Europeo Jean Monnet "Antonio Truyol".

